Informazio lagungarria

Ordutegia

Apirilaren 15etik urriaren 15era:
Goizeko 10etatik 14etara
eta arratsaldeko 16etatik 19etara
Igande eta jaiegunetan:
Goizeko 10etatik 14etara.

Urriaren 16etik apirilaren 14ra:
Goizeko 10etatik 14etara
Astelehenetan itxita

Nondik nora



BI-2701 errepidearen 23,5 km-an
dagoen aparkalekutik sarbidea

Harremanetan jartzeko

El pobaleko burdinola
El Pobal auzoa z/g
48550 Muskiz

Tfno. 629 27 15 16
info@elpobal.com
www.bizkaia.net/elpobal

El Pobaleko burdinola
Ferrería de El Pobal

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

2008/09 Ikasturtea

El Pobaleko burdinola


Tailer eta jarduerak

Monumentu-multzo izendatutako museo hau iraganaren adierazgarri baliotsua da: burdingintza eta errotaritzari loturiko 500 urteko historiarena, alegia.

Jarduera askotariko programa eta abian jartzen diren instalazio ikusgarriak ditugu.



Museo bizia



El Pobaleko Burdinola geure lehenaldiaren industriaurreko bi jarduera garrantzitsuenei buruzko museoa da: burdingintza eta errotaritzari buruzkoa, alegia.

Monumentu-multzo honek, burdinola izateaz gain, azpiegitura hidrauliko berezia (urtegia, ubideak, aldaparoak), irin-errota, jauregi-etxea, ogi-labe bi eta, natur inguru ederra ditu.

Museoaren edukien aberastasunak, bisita zenbait ikuspegi ezberdinetatik abiatzea ahalbidetzen du. Historia, zientzia, teknologia, industria, ingurugiroa edo energia erakusgai dira El Pobalen. Hau dela eta, museoa ezinbesteko baliabide didaktikoa dela azpimarra dezakegu.

Jardueren taula

Bisita mota	Iraupena	Tarifa	Norentzat gomendatua
Bisita gidatua	Ordubete	€ 1	Jende guztia
El pobal eta 5 zentzumenak	45 minutu	€ 1	Haur hezkuntza, 1. eta 2. Lehen hezkuntza
Bisita gidatua + Talo Tailerra/Ogi tailerra	2 ordu	2 €	Lehen hezkuntza
Bisita gidatua + Olagizonen proben jolasa	Ordu eta erdi	2 €	Lehen hezkuntza
Bisita gidatua + Gida didaktikoak	Ordu eta erdi	2 €	Lehen hezkuntza, Dbh eta Batxilergoa
Bisita gidatua + Eskola agenda 21	2 ordu	2 €	Lehen hezkuntza eta Dbh
Bisita gidatua + Burdin tailerra	2 ordu	2 €	Dbh
Euskara landuz	Ordu eta erdi	2 €	Dbh eta Euskaltegiak
Enkarterrietako Museoarekin baterako bisita	Ordubete	€ 1	Dbh eta batxilergoa

Berritasunak

Ikasturteon, zuoi bisitari gazteoi, honako hiru berritasun hauek eskaini nahi dizkizuegu:

Lantegia eta paisaia "Eskola agenda 21"



El Pobaleko ingurugiroa da jarduera honen eskenatokia, haren bitartez ikaslea natur inguruneaz eta beronen baliabideen erabiltze jasangarriz jabetuko delarik. Burdinola eta errota inguruneaz zelan baliatu izan diren ikusiko du ikasleak (energia hidraulikoa, egurikatza, zurezko makinak, basoa soiltzea, basoa berritzea...), paisaiari etekin atereaz baina, aldi berean, paisaia bera eraldatuz.

Burdin tailerra "Olagizon egun batez"

Tailer esperimentala dugu non gazte zein umeek hainbat praktika eta trikimailuren bidez, burdin ezberdin batzuk bereizten ikasiko duten. Horretarako ondoko bezalako metodoak erabiliko dira: zenbait egitura eta kolore behatzea, indarra erabiltzea (bihurdura, haustura zein karrakaketa) edo beroa ezartzea pieza txikiak forjatzeko. Gure sutegi-laborategian burdina lantzeko era atseginak berauek.



Burdinaren lantzeaz erakustaldia sutegian

Bisita gidatuan zehar, errotak martxan, labeak piztuta eta hauspoak abiarazita ikusteaz gain, ikasturteon, sutegian egingo den burdinaren lantzeari buruzko erakustaldi erraza batez gozatzeko aukera izango dute ikasleek.





